



LESAKAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
[Telf. 948637005](tel:948637005)
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

EGINBIDEA:

Jasota gera dadin Lesakako Udalak, 2021eko otsailaren 25ean egindako osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuela 2021eko aurrekontua beteazartzeko oinarrien aldaketak, abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak sartu dituen xedapen berrietara egoitzeko helburuz. 2021eko apirilaren 15eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren (59. zk). Jendaurreko erakustaldian alegaziorik aurkeztu ez denez, aldaketak behin betiko onartutzat jo da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Lesaka, 2021.03.02
SINADURA DIGITALA.
IDAZKARIA
M^a Jose Larrayoz Ariztegui

LESAKAKO UDALA
2021EKO AURREKONTUA GAUZATZEKO OINARRIAK

I. KAPITULUA. - AURREKONTUA.

Lehen atala. Printzipio nagusiak eta aplikazio-esparrua.

1. OINARRIA: PRINTZIPIO NAGUSIAK

Nafarroako Toki Ogasunetako 2/95 eta Nafarroako Toki Administrazioiko 6/90 Foru Legeetan, Nafarroako Toki Ogasunetako 2/95 Foru Lege hori garatzen duten irailaren 21eko 270/98 Foru Dekretuan, aurrekontu eta gastu publikoko gaietan eta aurrekontu-egiturako gaian hurrenez hurren, eta Oinarri hauetan xedatutakoaren arabera onartu, kudeatu eta likidatuko da Lesakako Udalaren 2021ko Aurrekontu Orokorra.

2. OINARRIA : APLIKAZIO-ESPARRUA

1. Oinarri hauek Aurrekontu Orokorren betearaztea arautuko dute, beraz udalaren babesaren beste organo edo sailentzako ere aplikagarria izanen da.

2. Ekitaldirako onartutako Aurrekontuaren iraunaldi bera izango dute. Aurrekontu horiek luzatu beharko balira, Oinarri hauek luzatutako epean zehar zuzenduko dute.





LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Telf. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

Bigarren atala. Aurrekontu Orokorra.

3. OINARRIA: AURREKONTU-EGITURA

1. Aurrekontu Orokorren egitura bat dator aurrekontu-egiturako gaien Nafarroako Gobernuak 271/98 Foru Dekretu bidez ezarritakoarekin.
2. Gastuetan esleitutako kredituak irizpide funtzional eta ekonomikoen bidez sailkatuko dira, aurrekontu-partida bi sailkapenak bateratuz definituko da eta horrela gastua betetzearen kontabilitate-erregistroa egiteko unitatea eratuko da. Kontrol fiskala, 6. Oinarrian ezarriko den lotura juridikoaren mailan egingen da.
3. Gastuen egoeran, irailaren 23 -ko 234/2015 Foru Dekretuan aipatzen diren aurrekontu-aplikazio guztiak berariaz irekita daudela adierazten da.

4. OINARRIA: AURREKONTU OROKORRAREN OSAKETA

Ekitaldirako Aurrekontu Orokorra Lesakako Udalaren aurrekontua ondorengoak osatuko du:

1. Udaletxeko aurrekontua
2. Andra Mari Zahar Etxeko erakunde autonomoaren aurrekontua.

5. OINARRIA: GASTU KREDITUEN MUGA

1. Gastuetarako kredituak gastu horien muga maximoa dira. Aurrekontuan sartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen eta zerbitzu bakoitzerako beharrezkoa den kopuruan hartu behar dira, kreditua egoteak bakarrik gastua egiteko baimenik eman gabe. Xedapen hori urratzen dutenak gertatutakoaren arduradun zuzen eta bakarrik izango dira, indarreko legerian xedatutakoaren arabera Lesakako Udalarekiko obligazio horiek baliogabe izateari utzi gabe.
2. Nahiko krediturik ez duten edo Aurrekontuan jaso ez diren gastuak burutzeko, aplikatu beharreko legerian eta oinarri hauetan xedatutakoa jarraituko da.

6. OINARRIA: LOTURA JURIDIKOA

1. Gastuetarako kredituak, Aurrekontu Orokorrean esleitu duten helburu espezifikorako edo behar bezala onartutako aldatetarako bakarrik erabiliko dira, eta mugatuak eta lotesleak izango dira. Ondorioz ezingo da kreditu horien zenbatekoa baino gastu-konpromiso handiagorik hartu, eta arau hori urratzen duten akordio, erabaki eta ekintza administratiboak eskubide osoz baliogabe izango dira, eman daitezkeen erantzukizunak eragotzi gabe. Muga hori betetzen ote den, ondorengo atalean ezarritako lotura juridikoaren mailan egiaztatuko da.





LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Telf. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

2. Orokorrean, lotura juridiko, kuantitatibo eta kualitatiboko mailak ondoko hauek izango dira:

- a) Sailkapen funtzionalari dagokionean, funtzio-multzoa.
- b) Sailkapen ekonomikoari dagokionean, kapitulua.

7. OINARRIA: LOTURA JURIDIKOAREN ONDORIOAK

1. Gastua egiteko baimena eskatzerakoan aurrekontu-partida bateko kopurua gainditzen badu, baina aurreko oinarrian zehaztu bezala, dagokion lotura juridiko maila gainditu gabe, eskatzaileak gastuaren beharra eta kreditua ez dela nahikoa justifikatu beharko du.

2. Aurrekontu-partida batean zehaztu gabeko gastu bat egitea beharrezkoa bada eta dagokion lotura juridikoak kreditua baldin badu, aurrekontuko gastuetan, partida berria sortu ahal izango da zero hasierako kredituarekin, eta ez da beharrezkoa aurrekontuetan aldaketarik egitea, beti ere lotura juridiko bereko poltsaren beste partidetatik lagatuko kredituarekin zuzkitzen bada. Partida berria sortzeko, kontu-hartzaileak neurria egokia dela oniritzen badu, ireki ahal izanen du .

Hirugarren atala . Aurrekontuen aldaketak.

8. OINARRIA: KREDITU-ALDAKETAK

1. Krediturik ez duen edo lotura juridikoko maila gainditzen duen gastu bat egin behar denean, bidezko aurrekontu-aldaketako espedientea bideratuko da, Oinarri honetan araututako berezitasunek eta lege-preskripzioek agindutakoa jarraituta.

2. Aurrekontuaren edozein aldaketak, berau justifikatuko duen proposamen arrazoitua eskatzen du, eta onartzen den unean zehaztutako ondorioak betetzean izan dezakeen eragina baloratuko du.

3. Kontu-hartzaileak aldeztatik jakinarazi behar dituen aldaketa-espedienteek, Oinarri honetan eta indarreko araudian araututako onarpen-izapideak gainditu behar dituzte.

4. Osoko bilkurak onetsitako aldaketak honela tramitatuko dira:

- a) Udaltzak kreditu horiek emateko hartutako hasierako erabakia jendaurrean jarriko da Udaltzako iragarki ohelean, hamabost egun naturaleko epean, herritarrek edo interesdunek egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak edo alegazioak aurkez ditzaten.
- b) Epe hori iraganik, eta inork erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu ezean, hasierako onespeneraren erabakia behin betiko onetsizat joko da,

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.net/>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikokoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.net/eu/>



0019577112921117991069



LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Telf. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

eta jendaurrean egoteko epea bukatutakoan sartuko da indarrean.

- c) Erreklamazio edo alegaziorik aurkezten bada, Osoko Bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du haiek ebatzeari eta proposatutako aldaketa behin betiko onartzeari buruz. Aldaketa indarrean sartuko da behin betiko testua toki entitatearen iragarki oholean argitaratu ondoren.

5. Udalbatzak onartutako aldaketak ez dira betearazleak izango behin betiko onartu eta ondoren argitaratze-izapidea amaitzen ez den arte.

9. OINARRIA: EZOHIZKO KREDITUAK ETA KREDITU-GEHIGARRIAK

1. Ekitaldian, ondorengo urtera arte atzeratu ezin den gastua egin behar bada, eta krediturik ez badago, aurrekontuaren aldaketa ezohiko kredituaren bidez onartu ahal izango da.

Aurreikusitako kreditua nahikoa ez bada eta gehitzeko aukerarik ez badago, kreditu-gehigarriko espedientea hasiko da

2. Ez-ohiko kredituak eta gehigarriak ondoko bitarteko hauetako batekin edo gehiagorekin finantzatuko dira:

a) Diruzaintzako soberakin likidoa.

b) Ekitaldian jasotzea aurreikusten den diru-sarrera berriekin.

c) Aurrekontu arruntean aurreikusi gabeko sarrerak edo aurreikuspenak gehitzen dituztenak. Finantzaketa hori dagoela ulertuko da 1. kapitulutik 5.era bitarteko ekonomia-kapituluei edo diru-sarreraren aurrekontuko 6. kapitulutik 8.era arteko kontzeptuei dagozkien diru-sarreraren bilketa garbia kapitulu horietako edo kontzeptu horretako hasierako aurreikuspenak baino handiagoa denean, hurrenez hurren.

Finantzaketa hori dagokion gehikuntzaren zenbatekoan zenbatuko da, kreditu gehikuntzak finantzatzeko aurreikusten diren diru-sarrerak edo aurrekontuan kreditua sortu dutenak kenduta.

d) Konprometitu gabeko indarreko Aurrekontuko beste hainbat partiden kreditu baliogabetuak edo bajak, eta partida horien kopuruak, dagokion zerbitzua kaltetu gabe murriztu daitekeela uste denean.

3. Inbertsio-gastuak bestalde, kreditu-eragiketetatik jasotako baliabideen bidez finantza daitezke.

4. Lesakako Udaleko Udalbatzarrak bestelako finantza-moduak nahikoak ez direla

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.net/>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikokoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.net/eu/>



0019577112921117991069



LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Telf. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

aitortzen duen kasu bakoitzean eta gehiengo absolutuak hartutako erabakiaren bidez, gastu arrunt berriak edo handiagoak kreditu-eragiketen bidez finantzatu ahal izango dira premiazko eta beharrezkotzat jotzen badira, eta ondoko baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Urteko kopuruaren guztizkoak, Lesakako Udalaren Aurrekontuaren eragiketa arrunten bidez baliabideen ehuneko 5 ez gainditzea.

b) Eragiketak, hitzartzen dituen korporazioak berriro aurretik kitatu egin behar dira.

5. Salbuespen gisa eta aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onetsi arte, aurreko ekitaldiko erabili gabeko baliabideen bidez finantzatzen ahalko dira gastu berri edo handiagoei aurre egiteko behar diren aldaketak. Kontu-hartzaileak txostena egin beharko du finantzazioa benetan eskuragarria den jakiteko.

6. Aipatu espedienteak, Lesakako Udaleko Alkatearen aurrean, dagokion unitateko buruak eskatuta hasiko dira.

7. Eskabidearekin batera, gastu zehatza ekitaldian egiteko beharra eta lotura juridikoko mailan nahikoa krediturik ez dagoela justifikatuko duen memoria aurkeztu beharko da.

8. Espedienteak, kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, Udalbatzarrari aurkeztuko zaizkio, onets ditzan, eta 8.4. oinarrian aurreikusitakoarekin bat tramitatuko dira.

9. Kontu-hartzaileak aldeztu aurretik adierazitako espedienteak Udalbatzak onartu beharko ditu Aurrekontuaren izapide eta baldintza berberekin. Erreklamazioak aurkezten badira Udalbatzak erabaki beharko ditu, jendeari erakusteko epea amaitu eta 30 egunen buruan.

10. OINARRIA: KREDITU-TRANSFERENTZIAK

1. Nahikoa krediturik ez duen partida bati aplikatu dakiokeen gastu bat egin behar denean, eta gastuen egoeraren guztizkoa aldatu gabe lotura juridikoko hainbat mailako dagozkien beste hainbat partidetatik kreditua murriztu daitekeen, kreditu-transferentziako espedientea onartuko da. Edozein kasutan, legeak ezarritako mugak hartuko dituzte kontuan.

2. Kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, aldatzeko xede duten kredituen kudeaketaz arduratzen diren administrazio-zentroek hasiko dituzte espedienteak. Ondoren adieraziko dugun moduan onartuko dira:





LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
[Telf. 948637005](tel:948637005)
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

- a) Alkatetzaren Dekretu bidez, transferentziak, funtzio-talde berari dagozkion partiden artean direnean.
- b) Alkatetzaren Dekretu bidez, altek eta bajek pertsonal-kredituetan eragiten dutenean.
- c) Gainerako kasuetan Udalbatzarrak, gainerako kasuetan, 8.4. oinarrian aurreikusitako irizpide berdinei jarraituz.

11. OINARRIA: KREDITU HEDAGARRIAK

1. Partida hedagarritzat hartzen dira, espreski eragindako baliabideekin finantzatuak. Ondoko hauek aitortuko dira hedagarri:

Aurrekontu-partida

Sarreraren kontzeptua

9200-22708	Agentzia exekutiboa	39212	Beste errekaruak
9200-22609	Zerga-bilketa zerbitzua	29000	Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga
3300-22750	Kultur ekitaldiak	31402	Harriondoako sarrerak

2. Kredituak hedatzeko espedientea, gastua kudeatuko duen unitate administratiboak hasiko du, eta bertan, zabaldu nahi den kredituari lotuko zaizkion Sarreraren Aurrekontuan aurreikusitako eskubideak baino handiagoen aitorten irmoa kreditatuko da.

3. Udalaren Aurrekontu orokorrean eragingo duten kredituen handitze espedienteak onartzea Lesakako Udaleko Alkateari dagokio.

4. Partida hedagarriak berez lotesleak izango dira afektatutako baliabideekin ehunetik ehunean finantzatzen badira. Bestela eurentzat lotura kualitatiboa ezarriko da (kreditua, burtsako beste partidetatik har dezakete, uzteko).

12. OINARRIA: SARREREN ONDORIOZ KREDITUAK SORTU

1. Gastuen atalean kreditua eragin dezakete zerga-jatorria ez duten ondoko gastu hauek:

a) Toki-eskuduntzako gastuak finantzatzeko pertsona fisiko edo juridikoen ekarpenek edo ekarpenak egiteko konpromiso irmoek. Horretarako, sarrera egin





LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Telf. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

beharko da edo, sarrerarik ezean, dirua emateko akordio formala espedientean jaso beharko da.

b) Udal-ondasunak besterentzea; horretarako, eskubidearen aitorpena egin beharko da.

c) Maileguak itzultzea.

d) Zerbitzuak eskaintzea.

e) Aurrekontu orokorretik eginiko ordainketa okerrenatik, dagokion aurrekontu-partidan kreditua berriz ezartzeko sarturiko kopuruak.

2. Espedientean, kobratu denaren justifikazioa edo konpromisoaren irmotasuna jasoko da, bai eta handituko den partida ere.

3. Espedientea, Osoko Bilkurak onetsiko du, eta indarra hartzeko nahikoa izanen da osoko bilkuraren erabakia.

13. OINARRIA: KREDITU-SOBERAKINEN GEHITZEA

1. 2/95 Foru Legearen 211. artikuluan xedatutakoa gorabehera, ondoren adieraziko ditugun jatorria duten eta erabili ez diren kreditu-soberakinak hurrengo ekitaldiko gastu-aurrekontuetako kredituetan erantsi daitezke, nahikoa finantza-baliabide baldin badaude:

a) Ezohiko kredituak eta kreditu-gehigarriak, eta ekitaldiko azken hiruhilekoan hurrenez hurren eman edo baimendu dituzten kreditu-transferentziak, eta ematea edo baimentzea eragin zuten gastu berberetarako.

b) Aurreko ekitaldiko gastu-konpromisoak babesten dituzten kredituak.

c) Kapital-eragiketen ondoriozko kredituak.

d) Eragindako eskubideen esku-dirutako bilketaren araberako kreditu baimenduak.

2. Salbuespen gisa, eta aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onetsi arte, oinarri honetako 1. atalean deskribatu diren erabili gabeko kredituak gehitu ahal izanen dira; besteak beste, aurreko ekitaldian erabili gabeko baliabideekin finantzatuak. Esku-hartzeko txostena egin beharko da, kreditua benetan badela eta finantzaketa eskura dagoela adierazteko.

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.net/>
Egiatzipen-kode segurua egoitza elektronikoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.net/eu/>



0019577112921117991069



LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Telf. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

3. Hala ere, ukitutako diru-sarreraren bidez finantzatutako proiektuak babesten dituzten kreditu gerakinak nahitaez sartu beharko dira, ekitaldi kopurua mugatzeko arauak aplikatu gabe, non eta ez den erabat edo hein batean desagertuko edo jarraituko gastua, edo ezinezkoa izatea. Era berean, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onetsi arte sartu ahalko dira. Kasu horretan, kontu-hartzaileak kreditua benetan badela dioen txostena egin beharko du.

4. Erabiltezinak bezala aitortutako kredituak eta aurreko ekitaldian dagoeneko gehitu ziren soberakinak ezingo dira gehitu. Denbora baterako mugak, eragindako sarrerekin finantzatu diren proiektuak babestuko dituzten kreditu-soberakinak gehitzean ez du eragingo, beti derrigorrezkoa izango da, gastua egiteari uko egiten ez bazaio.

5. Eragina duten eremuetako arduradunek Kontu-hartzailertzan soberakinak eransteke proposamen arrazoitua egingo dute; proposamenarekin batera, ekitaldian zehar burutuko dela eta soberakinaren zenbatekoa adieraziko dituen dokumentua aurkeztuko da.

6. Espedientea Kontu-hartzailertzaren egiaztatze eta dagokion txostenarekin, Lesakako Udaleko alkateari aurkeztuko zaio, honek onar dezan. Onarpena, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea ez da beharrezkoa izanen.

Baliabideek, erantsi beharreko gastu guztiak betetzen ez badituzte Lehendakariak zehaztuko du jardueren lehentasuna.

14. OINARRIA: BALIOGABETZEAREN ONDORIOZKO BAJAK

1. Lehendakariak kreditu baten saldoa, zerbitzua eragotzi gabe murriztu edo baliogabetu daitekeela irizten duenean, baliogabetzearen ondoriozko baja-espedientea irekitzea eta dagokion kreditu-atxikitzea agindu ahal izango du.

2. Bereziki aldaketa hori eskatuko da, aurreko ekitaldiko likidazioaren ondorioz Altxortegi Soberakin negatiboa emango balitz.

3. Kontu-hartzailearen txostena erantsi ondoren, Lesakako Udaleko Udaltzarak onartuko du.

2. KAPITULUA. - GASTUAK

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.net/>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikokoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.net/eu/>



0019577112921117991069



LESAKAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

[Telf. 948637005](tel:948637005)

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

Lehen atala . Gastuaren kudeaketa.

15. OINARRIA: GASTUA BURUTZEKO FASEA

1. Lesakako Udalaren eta bertako Erakunde eta Zerbitzuko Gastuen Aurrekontuen kudeaketa ondoko fase hauen bidez egingo da:

- a) Gastua baimendu (A).
- b) Gastua prestatu (D).
- c) Obligazioa aitortu (O).
- d) Ordainketa materiala.

2. Hala ere, eta espreski ezarriko diren kasuetan, ekintza bera aipaturako fase bat baino gehiagotan eman daiteke, ekintzak bananduta erabakiko litzatekeen kasuan izango luketen ondorio berak eraginez. Kasu horietan, erabakia hartzen duen organoak, metatuko duen fase bakoitza erabakitzeke eskuduntza izan beharko du.

16. OINARRIA: GASTU-PROPOSAMENA

1. Gastu-proposamena, dagokion arloko arduradun edo zinegotziak egingo du, eta kreditua, bere eskuduntzako esparru bateko premia betetzeko eskatuko du. Eskaera, erosketa-bale bat betez edo Kontu-hartzaitzari proposamena aurkeztuz egingo da, kasu guztietan zein aurrekontu-partidan sartzea proposatzen duen adieraziz.

2. Proposamen guztiak Kontu-hartzaitzari aurkeztu beharko dira, gastua jaso nahi den data baino aste bete lehenago gutxienez.

17. OINARRIA: AURRETIKO IKUSKATZEA ETA KREDITU-ERRESERBA

1. Gastuaren alde aurreko fiskalizazioa, proposamenari aurre egiteko nahikoa kreditu dagoela eta aurrekontuko kredituak aurreikusitako helburuetarako erabiltzen direla Kontu-hartzaitzak egiaztatzea da. Halaber, proposaturako gastuan eragingo duen beste edozein alderdi egiaztatuko da.





LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Telf. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

2. Kontu-hartzaileak gastu-proposamenari egokia baderitzo ontzat emango du, zein aurrekontu-partidan sartzen den adieraziko du, eta dagokion kreditu-erreserba egingo du. Ados egongo ez balitz, organo kontu-hartzaileak txosten bat egingo du eragozpenak adieraziz, eta espedientea proposatzaileari igorriko dio.

18. OINARRIA: ERREPAROAK ZUZENTZEKO PROZEDURA

1.- Kontu-hartzaileak erreparo-txostena egiten duenean, proposamena egiten duen zerbitzuburuaren edo dagokion zinegotziaren ardura izanen da hura zuzentzea edo, desadostasunik balego, kontu-hartzailearekin dagoen desadostasunaren arrazoiak jasotzen dituen txostena egitea. Txosten hori kontu-hartzea egiten duen organoari bidaliko zaio eta espedientearen tramitazioak aurrera egingen du, beti ere erreparoa jarraian azalduko diren egoeretan gertatzen ez bada. Egoera hauetakoren bat gertatuko balitz, gastuaren tramitazioa bertan behera geldituko da:

- a) Kredituaren ez-nahikotasunean oinarritzen direnean, edo aurrekontua egokitzen jotzen ez denean.
- b) Ordaintzeko aginduen egiaztagirietan irregulartasun larriak ikusten direnean, edo agindu horien jatorrian dauden ekintzak fiskalizatu ez direnean.
- c) Espedienteko betekizunen bat edo funtsezko tramiteren bat bete ez denean.
- d) Erreparoa obretako materialen, horniduren, erosketen edo zerbitzuen gaineko egiaztatzearen ondorioa denean.

2.- Erreparoa eragiten dion organoa erreparo horrekin ados ez dagoenean, Alkateak erabakiko du desadostasuna, betearazpen-ebazpen baten bidez. Nolanahi ere, udalbatzak erabaki beharko du desadostasunaren gainean honako kasutan:

- a) Kredituaren ez-nahikotasunean edo desegokitasunean oinarritzen direnean.
- b) Onarpena udalbatzaren eskumenekoa den gastuen kasuan.

3.- Organo kontu-hartzaileak, osoko bilkura egin baino lehen, egindako erreparoen aurka alkateak emandako ebazpenak jasoko dituen txostena egingen du. Idazkariak txosten hori zinegotzien esku utziko du, bilkuran aztertu beharreko gainerako gaietara dagokien dokumentazioarekin batera; nolanahi ere, galderen eta eskaeren txandan txostena irakurri egingen da. Aztergai hori nahitaez sartu beharko da gai-zerrendan.

19. OINARRIA: GASTURAKO BAIMENA





LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Telf. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

1. Gasturako baimena, kopuru jakin edo gutxi gorabeherako bateko gastua erabakitzen duen ekintza administratiboa da; horretarako, dagokion aurrekontu-kreditua gordeko da.

2. Baimena, beti aurrekontu mugen barne, Osoko bilkurari edo alkateari ematea dagokio betiere aurrekontuetako mugak errepetatuta, irizpide hauen arabera:

- a) Toki-erakundeko alkateari dagokio kontratazio-organo gisa dituen eskumenak honako hauei dagokienez: obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, obrak emateko kontratuak, zerbitzuak emateko kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta horien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa, ezta, nolahi ere, sei milioi euroko zenbatekoa baino handiagoa, urte anitzeko kontratuak barne, baldin eta luzapen horiek guztira lau urte baino gehiago irauten ez badute eta aipatutako behin-behineko luzapenak ere.
- b) Udalbatzari dagozkio Toki Entitateak egiten dituen aurreko atalean aipatutako kontratuei dagokienez kontratazio-organo gisa dituen eskumenak, baldin eta kontratu horien balioa edo iraupena ikusita Toki Erakundeko alkateari ez badagozkio, aurreko idatz-zatiaren arabera.

3. Gastuak kantitate finkoak eta mugaeguna aldizkakoa denean edota kontratu baten ondorioz sortutako gastuak baldin badira ez da baimenik behar. Kasu horietan nahikoa izango da ekintzaren edo kontratuaren lehenengo ordainketarako baimena ematea, edota kontratua formalizatzeko baimena ematea, inbertsioak barne.

20. OINARRIA: GASTUAREN XEDAPENA

1. Gastuaren xedapena edo konpromisoa administrazio-ekintza da; horren bitartez, aldez aurretik baimendutako gastua egitea erabaki da kopuru jakin edo gutxi gorabeherakoan. Garrantzi juridikoa du eta Lesakako Udala hirugarren pertsonekin lotzen du.

2. Gastuen xedapena baimentzeko eskuduntza duten organoak, aurreko oinarriak araututakoaren arabera, gastua baimentzeko eskuduntza duten berberak dira.

21. OINARRIA: OBLIGAZIOAREN AITORPENA

1. Obligazioaren aitortpen-ekintzaren bidez Lesakako Udalaren aurkako kreditu

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.net/>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.net/eu/>



0019577112921117991069



LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Tel. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

exijigarria dagoela adierazten da, baimendu eta konprometitutako gastuaren ondorioz, aldez aurretik dokumentu bidez organo eskudunaren aurrean egiaztatuta, gastua baimendu eta konpromisoa hartu zuten erabakiekin bat etorrita.

2. Hornigaiak jaso, edo zerbitzua edo obra burututa, gastua kudeatu duen arduradunak Kontu-hartzailetzara igorriko du, gastua burutu izan dela justifikatuko duten fakturak edo dokumentuak behar bezala onartu ondoren.

3. Kontratista eta hornitzaileek egindako fakturek, gutxienez, ondoko datu hauek adierazi behar dituzte:

- Lesakako Udalaren izena eta IFZ.
- Kontratataren izena eta IFZ.

- Horniketa edo zerbitzuaren gutxieneko deskribapena

- Eskaera egin zuen Zentro Kudeatzailea.
- Igorpen-data eta lekua.

- Fakturatutako zenbatekoa.

4. Faktura horiek osatu ondoren Kontu-hartzailetzara eramango dira, eta honek fiskalizatu egingo ditu. Dagokion organoak onartzeko faktura guztien zerrenda egingo da.

5. Alkateari, obligazioak aitortu eta likidatzea dagozkio. Fakturak, eginbide eta sinaduraren bidez onartuko dira, eta Kontu-hartzailetzak egindako zerrendan jasoko dira.

6. Arazorik balego faktura edo dokumentazioa dagokion arduradunari itzuliko zaio, okerrak zuzen daitezten. Ondoren 18. oinarrian zehaztutako izapideak jarraituko dira.

22. OINARRIA: AITORPENERAKO DOKUMENTUAK

1. Pertsonaleko gastuetan egiaztargiri gisa nomina, Gizarte Segurantzako kitapenak, Montepioko gastuak , e.a. balioko dute. Zerbitzu berezien ondorioz ordainsari aldakorrak eragiten dituzten zerbitzuak Alkateak izapidetuko ditu.

2. 2. kapituluko gastuetan faktura, 21. Oinarrian adierazitakoaz gain, gutxieneko baldintza legalekin aurkeztea exijituko da. Dieta eta ordezkartzako

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.net/>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.net/eu/>



0019577112921117991069



LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Telf. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

gastuak Alkateak izapidetuko ditu.

3. Gastu finantzarioetan ondoko arlo hauek hartuko dira kontuan:

a) Zuzenean banku-kontuak kargatutako interes eta amortizazioek eragindakoak, dagozkien amortizazio-tauletara egokituko direla egiaztatuko da.

b) Beste gastu finantzarioekin, likidazioak aurkeztuko dira.

4. Transferentzia arrunt zein kapitalekoetan, O fasea izapidetuko da transferentzia erabakitzen denean. Ordainketa baldintzatuta balego, O fasea, zehaztutako baldintzak bete ondoren bideratuko da.

5. Inbertsio-gastuetan kontratistak fakturekin batera dagozkion obra-ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Bigarren atala. Ordainketa egin.

23. OINARRIA: ORDAINTZEKO AGINDUA

1. Ordainketa agintzearen bidez, ordainketen arduradunak, aitortutako eta likidatutako obligazio batean oinarrituta, dagokion ordainketa-agindua luzatuko du.

2. Ordainketak agintzea Alkatearen eskuduntza da.

3. Ordaintzeko aginduak Kontu-hartzaileak luzatuko ditu, banako dokumentuen bidez edo ordaintzeko aginduen zerrendetan oinarrituta; beti pertsonal-gastuei eta aurreko ekitaldietan hartutako obligazioei lehentasuna emanez.

4. Ordaintzeko aginduetan, gutxienez, zenbateko gordin eta likidoa, hartzekodunaren identifikazioa eta zein aurrekontu-partidan aplikatzen diren adieraziko dira.

24. OINARRIA: ORDAINKETA

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.net/>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.net/eu/>



0019577112921117991069



LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Tel. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

1. Ordainketaren bidez, agindutako ordainketei dagozkien zorrak kitatuko dira.

2. Ordainketa horiek banku-transferentzia edo txeke nominatiboaren bidez egingo dira, indarreko legeriak onartuko bidezko beste hainbat metodo kaltetu gabe. Eskudiruko ordainketetan, altxordegiko langileak hartzailearen identitatea egiaztatuko du eta dagokion agiria sinatzera behartuko du

Hirugarren atala. Administrazio-prozedurak.

25. OINARRIA: BURUTZAPEN-FASEEN METAKETA

1. BAIMENA, XEDAPENA ETA OBLIGAZIOA

Kontratazio-espeditante bat egitea eskatzen duten gastuetan, hasieran A dokumentu bat izapidetuko da, zerbitzu teknikoek landutako proiektu edo aurrekontuaren kostuaren balio berarekin.

Esleipenduna eta kopuru zehatza ezagututa, D dokumentua izapidetuko da.

Obra, zerbitzuaren eskaintza, eta abar burutuko den neurrian, dagozkion O dokumentuak izapidetuko dira.

Bertan daude, besteak beste:

- Inbertsio- edo zainketa-obrak.
- Ibilgetua eskuratzea.
- Faseak bereizi daitezten gomendatzen duten beste hainbat.

2. BAIMEN/XEDAPENA ETA OBLIGAZIOA

Lesakako Udalak legalki eskuratutako konpromisoei dagozkien gastuek AD dokumentua ekitaldiari egotzi dakiokkeen zenbatekoagatik izapidetu dadin eragingo dute.

Taldean, ondoko hauek sartuko lirateke.

- Hainbat urtetarako gastuak, konprometitutako urterokotasunaren

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.net/>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikokoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.net/eu/>



0019577112921117991069



LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Telf. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

zenbatekoagatik.

- Zerbitzuak eskaintzeko kontratuak.
- Maileguen amortizazioa.

O dokumentuak, obra egitean, zerbitzua eskaintzean edo kontratuko xede den ondasuna eskuratzean izapidetuko dira.

3. BAIMENA/XEDAPENA/OBLIGAZIOA

Kopuru txikiko gastuak, eragiketa arruntak direnak, eta kutzako aurrerapen finkokoak eta justifikatu beharrekoak egintza bakar batean (ADO) metatu ahal izango dira.

Batez ere ondoko gastu hauek:

- Material txikiak eskuratu.
- Dietak, ibilgailu-gastuak, Korporazioko kideen eta pertsonalaren kalte-ordainak eta ordainsariak.
- Interesak eta bestelako finantza-gastuak.
- Segidako tarteko kontratuen gastuak (telefonoa, argia, eta abar).
- Iragarkiak, harpidetzak eta legeriak ezarritako gastuak.
- Alokatzekak, kontratatuko aseguru-primak eta arreta finkoak, orokorrean, ordainketa, behar bezala onartutako kontratuaren ondorio denean.
- Langileen nominak
- Gizarte Segurantzari eta pertsonalari gizarte-laguntzako bestelako arretetarako kuotak.

Laugarren atala. Prozedura bereziak.

26. OINARRIA: FONDOEN AURRERATZEA

1. Zorrak kitatzeko epea helduta, obligazioen aitortpena justifikatzen duen dokumentua izapidetu ez den kasuetan, fondoan aurreratzea egin ahal izango da. Aurreratzea, dagokion aurrekontuz kanpoko kontzeptuaren bidez kontabilizatuko da, ondoren, Gastuen Aurrekontuan aplikatzeko.





LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Tel. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

2. Aurreratze hauek, pertsonalaren gastuetarako eta inbertsioen kontzeptuan kontura egiten diren ordainketetarako bakarrik burutuko dira.

3. Aurreratze horiek Gastuen Aurrekontura, ordaindu eta hilabeteko epean aplikatuko dira, eta edozein kasutan, Aurrekontua likidatu aurretik.

3. KAPITULUA. - SARRERAK

Lehen atala. Xedapen orokorrak.

27. OINARRIA: ALTXORTEGITIK KANPOKO SARRERAK

1. Baimenduko diren kutxa osagarriak egon daitezke. Kutxa horietan, Lesakako Udaleko altxortegian sartu arte diru-bilketen zenbatekoak aldi baterako gordetzeko helburua izanen dute.

2. Kutxa horiek enplegatu bakar baten kargura egongo dira; enplegatu honek mugimendu guztiak kutzako liburuan erregistratuko ditu. Ezin da erregistratu gabeko kopururik jaso.

28. OINARRIA: FIDANTZEN ONDORIOZKO SARRERAK

1. Epe luze zein laburrerako fidantzek, jasotakoek zein emandakoek, aurrekontutik kanpoko tratamendua izango dute.

Bigarren atala. Sarreraren kudeaketa.

29. OINARRIA: ESKUBIDEEN AITORPENA

Eskubideak aitortuko dira, Lesakako Udalaren aldeko likidazioa eman dela ezagutzen den une berean. Ondorio horietarako, jarraian adieraziko ditugun arauak bete beharko dira:

a) Aldez aurretik aitortutako zorren likidazioetan, sarrera zuzenekoak, aitorpena, aztertuko diren likidazioak onartzen direnean zenbatuko da.

b) Aldez aurretik aitortutako zorren likidazioetan, ordainagiri bidezko sarrerarenak, aitorpena, Alkateak errolda onartzen duen unean zenbatuko da.

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.net/>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikokoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.net/eu/>



0019577112921117991069



LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Telf. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

c) Aldez aurretik aitortu gabeko zorren sarrera eta autolikidazioetan, aurkeztu eta zenbatekoan sartu denean.

d) Eskaera jakinak betetzera baldintzatuta, beste erakunde batetik jaso beharreko transferentzien kasuan, eskubidea, emateko erabaki formalaren unetan zenbatuko da. Kudeaketa-zerbitzuek, dirulaguntzak emateari buruzko informazioa dutenean, Kontu-hartzailetzari jakinarazi beharko diote, dirulaguntza horien jarraipen puntuala egin dadin.

e) Banaketen Kontuaren bidezko eskubide likidatuak, kutxa-irizpidearekin zenbatuko dira, balio-data kontuan hartuta.

f) Mailegu hitzartuen bidezko eskubideen aitortpena, Altxortegian ordaintzen duten unean zenbatuko dira.

g) Beste sarrera guztietan, sortzapen-irizpidearekin zenbatuko da.

30. OINARRIA: ERROLDEN BIDEZKO SARRERAK

Erroldak, Kontu-hartzailetzak eratu eta fiskalizatu ondoren, Lehendakariari igorriko zaizkio onar ditzan, bilketa boluntariorako epeak adieraziz.

31. OINARRIA: DIRU-BILKETAREN KONTROLA

1. Altxortegia diru-bilketa zuzentzeaz arduratuko da, eta diru-bilketa gaian indarreko araudia ezartzea egiaztatzeko prozedura ezarri beharko du, bai eta balioen zenbaketa ere.

2. Ordainketen zatikapen, atzerapen, etete eta baliogabetzei dagokienean, Ordenantza Fiskal Orokorra eta arautegi orokorra jarraituko dira.

32. OINARRIA: GERORATZEA ETA ZATIKAPENAK.

1.- Lesakako Udalak, bere irizpide eta eskumenari jarraiki, zor zaizkion kopuruen ordainketak geroratzea eta zatikatu ahalko ditu, bai borondatezko aldian nola derrigorrezkoan, behartutakoek aldez aurretik hala eskatu badute.

2.- Geroratze edo zatikatzeko epea gehienez 2 urtekoa izanen da.

3.- Oro har, eskatzaileak, zorra 3.000€ baino haundiagoa bada, berme bat aurkeztuko du, kreditu-entitate edo elkarren bermerako sozietate bateko abal solidarioaren itxuran, eta, geroratze eskabidearekin batera, geroratzea ematen bazaio abal hori formalizatzeko entitate horren berariazko konpromisoa aurkeztu beharko du





LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

Telf. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

4.- Epeak ez errespetatzea zorra osoaren exijentzia premiamendu-bidez ekarriko du.

5.- Base hauetan ez dena agertzen, Nafarroako Toki Ogasunetako 2/95 legeko 92. artikuluan agertzen dena aplikatuko da.

4. KAPITULUA. – AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

33. OINARRIA: AURRETIKO ERAGIKETAK GASTUEN ARLOAN

1. Ekitaldiaren amaieran, obligazioaren aitortpena eskatzen duten udal-akordio guztiak O fasean jaso ote diren egiaztatuko da.

2. Ekitaldiaren azken egunean aitortutako obligazioak bete behar ez dituzten gastuetarako kredituak baliogabetu egingo dira, 13. Oinarrian jasotako kasuetan izan ezik.

34. OINARRIA: AURRETIKO ERAGIKETA SARREREN ARLOAN

1. Abenduaren 31ra arteko kobrantza guztiak, itxiko den aurrekontuan aplikatu behar dira.

2. 29. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, sarrera-kontzeptu guztietan eskubideen aitortpenaren kontabilizazioa egiaztatuko da.

35. OINARRIA: AURREKONTUA IXTEA

1. Lesakako Udalaren eta kudeaketa organoen aurrekontuak abenduaren 31n itxi eta likidatuko dira.

2. Aurrekontuaren likidazioa eta soberakinak gehitzeko proposamena hurrengo urteko martxoaren 31a baino lehen egin behar dira, eta Alkateak onartuko ditu, ondoren egingo den lehen bilkuran onartutakoaren berri Udalbatzari emanaz.

3. Toki entitateek behar bezala onetsitako likidazioa igorriko diote Foru Komunitateko Administrazioari, onetsi eta 15 egun balioduneko epean.





LESAKAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE LESAKA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)

[Telf. 948637005](tel:948637005)

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

36. OINARRIA: ALTXORTEGI-SOBERAKINA

1. Fondo likidoen eta kobratzeko eskubideen baturaren bidez osatuko dira, ordaintzeko obligazioak eta biltzeko zailtasunak dituzten eskubideak kendu ondoren.
2. Inbertsio-proiektuen ondorioz erantsi daitekeen kreditu-soberakinik badago, eraginpeko Altxortegi Soberakina erabili ahal izango da haiek finantzatzeko. Soberakina, finantziazio positiboko desbideratzeei dagozkien zenbatekoa izango da.
3. Gastu orokorretarako Altxortegi Soberakina positiboa bada, ondorengo ekitaldian kreditu-aldaketen finantziazio-iturri izan daiteke.
4. Soberakina negatiboa balitz Udaltzarak, Aurrekontuaren likidazioaren ondorengo lehen bileran, gastuen murrizketa onartuko du 14. Oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

5. KAPITULUA. – KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

37. OINARRIA: BARNE-KONTROLA

1. Kontu-hartzaitzak barne-kontrolako zereginak beteko ditu hiru arlotan: funtzio kontu-hartzailea, kontrol finantzarioko funtzioa eta eraginkortasun-kontrolako funtzioa.

